

35. atala: Bakarka

Hik, zuk, berorrek

35.1.- Entzun audioa eta egin aukera zuzena:

Kevinen ustez, independentzia aurreko euskaldunen hizkera...

- a) zabarra da, hizkera-mota desberdinen nahasketa.
- b) bertsolari eta apaiz kutsukoa da, horregatik egiten dute beti zuka.
- c) bertsolari eta apaizen hizkera da, pedantea eta garbizalea.

Tasiok zuzenketak egitea Kevini...

- a) ez zaio batere gustatu.
- b) tontakeria bat iruditu zaio.
- c) ez zaio batere axola, baina hitanoz hitz egitea ez zaio gustatzen.

35.2.- Garbizalekeriak sutan jartzen duela esaten dio Kevinek Tasiori, honek etengabe zuzenketak egiten baitizkio. Garbizaletasunaren izenean hitz asko asmatu ziren, baina askok ez dute arrakastarik izan. Asmatuko al zenuke hizki lodiz dauden hitzen esanahia? Aukeratu beheko hitz hauen artean:

kanpaiapuntua	mugikorra	parentesia	egunkaria	liburua	hegazkina	trena
telefonoa	motorra	txostena	motoa	koma	autoa	



-Bultzian egin genuen bidaia. **Berebilerik** baino erosoago, nire ustez.

-Izparringia irakurri gabe ez naiz inoiz oheratzen.

-“Baina”ren aurretik kakotxa jarri, eta esaldia amaitzean **kulatza**.

-Urrutizkinak jo du lehen. Entzun duzu?

35. atala: Bakarka

35.3.- Hona hemen independentzia aurreko gure arbasoen himnoa, garai hartako euskara “garbian” idatzia. Gai al zara zer esaten duen asmatzeko? Oso zaila egiten bazaizu, ikusi erantzuna.

Euzko-abendearen ereserkija

Gora ta gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari!

Areitz bat Bizkaya'n da
Zar, sendo,
Zindo
Bera ta
Bere Lagija lakua.

Areitz-ganian dogu
Gurutza
Deuna,
Beti geure
Goi-buru.

Abestu gora Euzkadi!
Aintza ta aintza
Bere Goiko Jaun onari.



35. atala: Bakarka

Transkripzioa (02:27)

T- Johnson, pasa iezadak txostena.

K- Eguzki-plakena?

T- Xafla, eguzki-xaflena.

T- Ez al zeukeagu datu berriagorik?

K- Ez, frenoen nibela egokia da.

T- Galgak, galgen maila egokia da.

K- Arazo bat izan genezake hemen, Tasio. Oxigeno-tuboak konjelatzen hasi dira.

T. Oxigeno-tutuak izozten hasi direla esan nahi duk, ezta?

K- Lehertzen badira ere, niri bost!

T- Aber, baina, zer geratzen zaik hiri gaur?

K- Independentzia aurreko euskaldunak batzuetan jasangaitzak zarete.

T- Ez diat ezer ulertzen.

K- Baina jakin al daiteke zergatik gustatzen zaizuen hainbeste nabarmentzea independentzia aurrekoak zaretela?

T- Ez diat hala ulertzen, Johnson.

K- Hizkera, Tasio, hizkera, zure moduko hizkera!

T- Hizkera?

K- Bai, bertsolari eta apaiz hizkera hori.

T- Hika egiten diatelako?

K- Beste gauzen artean ere bai.

T- Baina, nik ez diat horregatik egiten, Johnson. Ohitura bat duk. Hitanoa familia eta lagun arteko moldea duk.

K- Keba, hori segregazio-garaiko ohitura da.

T- Bereizketa garaikoa esan nahiko duk, ez?

T- Ez diat ezer ulertzen, Johnson.

K- Bai, badakizu, euskaldun berri eta euskaldun zaharren garaian gertatzen zen gauza bera. Beti zuen garbitasuna nolabait nabarmendu behar izaten duzue.

T- Bueno, bueno, mesedez, ez hadi orain tontakeria horrekin hasi.

K- Tontakeria? zure modukoentzat, benetako euskaldunentzat, autentikoentzat.

T- Nahi baduk, zuka egingo diat.

K- Ez, sentitzen duzun moduan egin, baina nik hitz egiten dudanean ez nazazu behin eta berriro zuzendu.

T- Ez nekian hizkuntza-kontu hauek inporta zitzaizkianik.

K- Ez da hizkuntza inporta zaidana, pedantekeria eta paternalismoa da sutan jartzen nauena.

Eta gainera, zer? Ni bezalako beltz puska batek ez du gai horretaz hitz egiteko eskubiderik, ala?

T- Zenbat aldiz esan behar diat ez haizela beltza, e?

K- Ikusten? Hika jarraitzen duzu.

T- Bueno, nahiago baduk, aurrerantzean berorika hitz egingo diat.

K- Berorika? Eta zer ostia da hori?

T- Berorrek ez luke ulertuko.

35. atala: Bakarka

Erantzunak

35.1- c) a)

35.2.-

Trenez egin genuen bidaia. Autoz baino erosoago, nire ustez.

-Egunkaria irakurri gabe ez naiz inoiz oheratzen.

*-“Baina”ren aurretik kakotxa jarri, eta esaldia amaitzean **puntua**.*

-Telefonoak jo du lehen. Entzun duzu?

35.3.-

Euskotarron himnoa

Gora eta gora Euskadi
aintza eta aintza
zeruko Jaun Onari

Aritz bat Bizkaian da
zahar, sendo, sano
bera eta bere legea bezalakoa

Aritz gainean dugu
gurutze santua
beti gure goiburu

Abestu gora Euskadi
aintza eta aintza
bere goiko Jaun Onari